



## 192 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

### ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa:** identifikazio datuak eta aitortpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azal tzen dena.

**2. mota: Aitortuaren erregistroa.** 2. motako erregistroaren diseinua, , apartatu hauetan eta foru agindu honetako Eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motakorako, erregistro bakarra egongo

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldeko zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu guztiek izango dute edukia. edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetiko/alfanumerikoak zuriunez joango dira



## 192 EREDUA

### A. 1. motako erregistroa: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	<b>ERREGISTRO MOTA</b> Zenbaki finkoa: «1».
2-4	Numerikoa	<b>AITORPEN EREDUA</b> «192» konstantea.
5-8	Numerikoa	<b>EKITALDIA</b> Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.
9-17	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN IFZ</b> Aitortzailearen IFZ jarriko da.
18-57	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN SOZIJETATE IZENA</b> Sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe. Eremu honetan ezin da inolaz ere ida tzi merkatari tza izenik.
58	Alfabetikoa	<b>EUSKARRI MOTA</b> Gako hauetako bat jarriko da: «C»: Informazioa CD-Rean aurkezten bada. «D»: Informazioa disketean aurkezten bada.
59-107	Alfanumerikoa	<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b> Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioeko eremu numerikoa. 68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.

108-120

**ZURIUNEAK**

121-122 Alfabetikoa

**AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA**

Aurkezten dena bigarren edo orderengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da nahitaez:

121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren datuak sartzea bada.

122. Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordezteka bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake.

123-135

**ZURIUNEAK**

136-144 Numerikoa

**AITORTUEN KOPURUA**

Aitortzaile honentzat euskarrian aitortuen zenbat erregistro sartu diren adieraziko da. Aitortu bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua).

145-162 Numerikoa

**EROSKETA ERAGIKETEN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO ALTA ERAGIKETEN ZENBATEKOA**

18 posiziotako eremu numerikoa.

«Erosketa eragiketen edo traspasoagatik izandako alta eragiketen zenbatekoa» eremuetan (aitortuaren erregistroetako 125etik 139ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da, zeinu eta koma dezimalik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

145-160: Erosketen edo traspasoagatik izandako alten zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

161-162: Erosketen edo traspasoagatik izandako alten zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

163-180 Numerikoa

**ESKUALDAKETA ERAGIKETEN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO BAJA ERAGIKETEN ZENBATEKOA.**

18 posiziotako eremu numerikoa.

«Eskualdaketa eragiketen edo traspasoagatik izandako baja eragiketen zenbatekoa» eremuetan (aitortuaren erregistroetako 148tik 162ra arteko posizioetan) adierazitako zenbatekoen batura jarriko da, zeinu eta koma dezimalik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

163-178: Eskualdaketen edo traspasoagatik izandako bajen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

179-180: Eskualdaketen edo traspasoagatik izandako bajen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

**181-250**

**ZURIUNEAK**

- \* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- \* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
- \* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira.
- \* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira bete tzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko dira.
- \* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriuneak utziko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta okaletan azenturik jarri gabe.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas

## 192 EREDUA

### B 2. motako erregistroa:

#### AITORTUAREN ERREGISTROA

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
1	Numerikoa	ERREGISTRO MOTA Finkoa: «2»
2-4	Numerikoa	AITORPEN EREDUA «192» konstantea.

<b>5-8</b>	<b>Numerikoa</b>	<p><b>EKITALDIA</b></p> <p>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.</p>
<b>9-17</b>	<b>Alfanumerikoa</b>	<p><b>AITORTZAILEEN IFZ</b></p> <p>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da.</p>
<b>18-26</b>	<b>Alfanumerikoa</b>	<p><b>AITORTUAREN IFZ</b></p> <p>Aitortuaren IFZ jarriko da.</p>
<b>27-35</b>	<b>Alfanumerikoa</b>	<p><b>LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ</b></p> <p>Aitortua adingabea bada eta IFZrik ez badu, eremu honetan legezko ordezkariaren IFZ jarriko da (aita, ama edo tutorearena).</p> <p>Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsuneak izango dira.</p>
<b>36-75</b>	<b>Alfanumerikoa</b>	<p><b>AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA</b></p> <p>Pertsona fisikoa bada, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea bada, eremu honetan adingabearen deiturak eta izena jarriko dira.</p> <p>Pertsona juridiko bat edo entitate bat izanez gero, sozietatearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.</p>
<b>76-80</b>	<b>Numerikoa</b>	<p><b>PROBINTZIAREN KODEA</b></p> <p>Oro har, aitortua bizi den probintziaren edo, hala bada, hiri autonomoaren bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:</p>

ARABA .....	01	LEON .....	24
ALBACETE .....	02	LLEIDA .....	25
ALACANT .....	03	LUGO .....	27
ALMERIA .....	04	MADRIL .....	28
ASTURIAS .....	33	MALAGA .....	29
AVILA .....	05	MELILLA .....	52

BADAJOSZ .....	06	MURTZIA .....	30
BARTZELONA .....	08	NAFARROA .....	31
BURGOS .....	09	OURENSE .....	32
CACERES .....	10	PALENTZIA .....	34
CADIZ .....	11	PALMAS, LAS .....	35
KANTABRIA .....	39	PONTEVEDRA .....	36
CASTELLO .....	12	ERRIOXA .....	26
CEUTA .....	51	SALAMANCA .....	37
CIUDAD REAL .....	13	S.C.TENERIFE .....	38
KORDOBA .....	14	SEGOVIA .....	40
CORUÑA, A .....	15	SEVILLA .....	41
CUENCA .....	16	SORIA .....	42
GIRONA .....	17	TARRAGONA .....	43
GRANADA .....	18	TERUEL .....	44
GUADALAJARA .....	19	TOLEDO .....	45
GIPUZKOA .....	20	VALENTZIA .....	46
HUELVA .....	21	VALLADOLID .....	47
HUESCA .....	22	BIZKAIA .....	48
BALEARRAK .....	07	ZAMORA .....	49
JAEN .....	23	ZARAGOZA .....	50

Establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarak badira, 99 jarriko da

Aitortuak establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarak direnean, XXX jarriko da, XXX aitortua bizi den herrialdearen kodea izango delarik. Horretarako, abenduaren 30ko 1.074/1999 Foru Aginduak III. Eranskinean jasotzen dituen herrialdeen gakoei jarraituko zaie.

Egoiliarak badira, edo egoiliarak izan gabe, lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorraren bidez aritzen badira, 78-80 posizioetan zeroak jarriko dira.

<b>81</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>AITORTUAREN GAKOA</b>  Gako hauetako bat jarriko da: Gakoa: T. Azalpena: Titularra. Gakoa: N. Azalpena: Jabe soila Gakoa: U. Azalpena: Usufruktuduna.
<b>82</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>EGOITZAREN GAKOA</b>  R: Egoiliarra, eta errentak establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituen ez egoiliarra. N: Errentak establezimendu iraunkorrik gabe lortzen dituen ez egoiliarra.
<b>83-94</b>	<b>Alfanumerikoa</b>	<b>BALORE KODEA</b>  Kontuan idatzitako zorrari Zor Publikoko Oharpenen Zentralak esleitu dion balorearen kodea jarriko da Eremu alfanumerikoa denez, ezkerraldeetik hasiko da betetzen eta eskuinaldeetik zeroz beteko da
<b>95</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>JATORRIAREN GAKOA</b>  A: Kostubidezko eragiketak. B: Kostugabeko eragiketak.
<b>96</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>AITORTUAREN GAKOA</b>  A: Entitate kudeatzaileek hirugarrenen eragiketak aitortzen dituzte. B:Oharpenen Zentralak bertan kontua dutenek beren kontura egindako eragiketak aitortzen ditu.
<b>97</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>ERAGIKETAREN GAKOA</b>  Gako hauetako bat jarriko da: Gakoa:A. Esanahia: Alta. Gakoa:B. Esanahia: Baja
<b>98-99</b>	<b>Numerikoa</b>	<b>ERAGIKETA MOTA</b> Gako hauetako bat jarriko da:

\* Alta eragiketak:

Gakoa: 01. Esanahia: Harpidetza.

Gakoa: 02. Esanahia: Erosketa edo berreroketa.

Gakoa: 03. Esanahia: Baloreak mailegatzea.

Gakoa: 04. Esanahia: Alta hartzea beste entitate batetik traspasatzeagatik.

Gakoa: 05. Esanahia: Baloreen tituluak eraldatzea.

Gakoa: 06. Esanahia: Kontu finantzarioei atxikitako aldi baterako lagapenak

Gakoa: 07. Esanahia: Kontu finantzarioei atxiki gabeko aldi baterako lagapenak.

Gakoa: 08. Esanahia: Baloreen mailegu-lagapena itzultzea

Gakoa: 09. Esanahia: Bigarren mailako merkatuan egin gabeko eskualdaketak. 24/1988 Legearen 37. art.

Gakoa: 10. Esanahia: Etekinak sortu dituzten beste eragiketa batzuk.

\* Baja eragiketak:

Gakoa: 11. Esanahia: Amortizazioa.

Gakoa: 12. Esanahia: Salmenta edo birsalmenta.

Gakoa: 13. Esanahia: Baloreak mailegatzea traspasatzeagatik.

Gakoa: 15. Esanahia: Baloreen tituluak eraldatzea.

Gakoa: 16. Esanahia: Kontu finantzarioei atxikitako aldi baterako lagapenak kantzelatzea.

Gakoa: 17. Esanahia: Kontu finantzarioei atxiki gabeko aldi baterako lagapenak kantzelatzea.

Gakoa: 18. Esanahia: Baloreen mailegu-lagapena itzultzea

Gakoa: 19. Esanahia: Esanahia: Bigarren mailako merkatuan egin gabeko eskualdaketak. 24/1988 Legearen 37. art.

Gakoa: 20. Esanahia: Etekinak sortu dituzten beste eragiketa batzuk.

**100-102 Numerikoa**

### **PARTAIDE KOPURUA**

Aitortzen den eragiketan zenbat subjektuk hartu duten parte adieraziko da.

**103-110 Numerikoa**

### **ORDENA ZENBAKIA**

Eragiketa bakoitza sekuentzialki enumeratuko da, eragiketa bereko aitortu guztiek ordena zenbaki bera izan dezaten.

**111-115 Numerikoa**

### **PARTAIDETZA PORTZENTAJEA**

Aitortu bakoitzak eragiketan duen partaidetza portzentajea adieraziko da, beti ere aitortzaileak horren froga nabarmena badu. Portzentajearen froga nabarmenik ez badago, zati berdinetan egotziko da.

Bi eremutan banatzen da:



111-113: Portzentajearen zati osoa adieraziko da (ez badu, zeroak jarri).

114-115: Portzentajearen zati hamartarra adieraziko da (ez badu, zeroak jarri).

<b>116</b>	<b>Alfabetikoa</b>	<b>TRASPASOAREN GAKOA</b>  Baja eragiketak izanez gero (97 posizioa: B balorea), eremu honetan T bat jarriko da entitate kudeatzailean alta hartzeko arrazoa entitateen arteko traspaso bat izan denean. Eremu hau ez da beste ezein kasutan beteko.
<b>117-124</b>	<b>Numerikoa</b>	<b>EROSKETAREN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO ALTAREN DATA</b>  Altxorreko Letrak noiz erosi diren edo, beste entitate batetik egindako traspasoagatik alta noiz hartu den adierazi behar da. Urteko lau digituak jarriko dira, hilabeteko biak (01etik 12ra) eta eguneko biak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatuaren arabera.  Datu hau beteko da letrak erosi edo, traspasoa dela-eta, alta hartu denean, nahiz letrak eskualdatu edo, traspasoa dela-eta, baja hartu denean.
<b>125-139</b>	<b>Numerikoa</b>	<b>ESKUALDAKETAREN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO BAJAREN ZENBATEKOA</b>  15 posiziotako eremu numerikoa.  Adierazi zeinu eta koma dezimalik gabe zein izan den erosketa eragiketaren zenbatekoa. Traspasoagatik egindako altak badira, hasierako erosketaren zenbatekoa adieraziko da, zeinu eta koma dezimalik gabe.  Eremu hau bitan banatzen da:  125-137: Erosketak izan duen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.  138-139: Erosketak izan duen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri  Era berean, eragiketari lotutako aitortuak asko direnean, bakoitzari egozten zaion zenbatekoa jarriko da beren partaidetza portzentajearen arabera.  Datu hau beteko da letrak erosi edo, traspasoa dela-eta, alta hartu denean, nahiz letrak eskualdatu edo, traspasoa dela-eta, baja hartu denean. Azken kasu horretan eskualdaketan kaltzelatu den zenbatekoa adieraziko da
<b>140-147</b>	<b>Numerikoa</b>	<b>ESKUALDAKETAREN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO BAJAREN DATA</b>

Altxorreko Letrak noiz eskualdatu diren edo, beste entitate bati egindako traspasoagatik baja noiz hartu den adierazi behar da. Urteko lau digituak jarriko dira, hilabeteko biak (01etik 12ra) eta eguneko biak (01etik 31ra) UUUUHHEE formatuaren arabera.

**148-162**      **Numerikoa**

**ESKUALDAKETAREN EDO TRASPASOAGATIK IZANDAKO BAJAREN ZENBATEKOA**

15 posiziotako eremu numerikoa

Adierazi zeinu eta koma dezimalik gabe zein izan den eskualdaketa eragiketaren zenbatekoa. Traspasoagatik egindako bajak badira, hasierako erosketaren zenbatekoa adieraziko da, zeinu eta koma dezimalik gabe.

Eremu hau bitan banatzen da:

148-160: Erosketak izan duen zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri

161-162: Erosketak izan duen zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri.

Era berean, eragiketari lotutako aitortuak asko direnean, bakoitzari egozten zaion zenbatekoa jarriko da beren partaidetza portzentajearen arabera.

**163-250**

**ZURIUNEAK**

